

Pentsalari unibertsala

«Alegia, pentsatzailea. Euskadik ez du hainbeste pentsatzaile interesgarri, bat nolanahi ahazteko», dio Joxe Azurmendik *Mirande eta kristautasuna* liburuaren hitzaurrean. Horixe izan da gutako askorentzat Azurmendi bera: pentsalaria hizki larriz, hots, bere kasa, bere baitatik, eta, beraz, gure errealitatearen arabera, autonomiaz hausnarrean ari-tu den pentsalaria.

Azurmendi idazle eta filosofo nekaezinak euskal idazle askoren ekarria aztertu du, Jon Miranderena, besteak beste, Euskal Herria (berr)eraikitze-ko ezinbestekoa baita pentsamendu propioa garatzea: «Esango nuke gure ataza pentsamendu independentea lantzean, gogoeta propioan egon litekeela: autokontzientziaren eraikuntzan, euskaldunaren (berr)egitean».

Ni neu Miranderen pentsamoldean sakontzeko gogoak eramán ninduen Azurmendik Miranderi buruz idatzi dituenak ikastera. Era berean, Miranderi buruzko testuek piztu dute niregan Azurmendiren pentsamenduan murgiltzeko gogo. Gainera, pentsalari gisa badute zenbait antzekotasun: biak abertzale osoak eta euskaltzale beteak izateaz gain, pentsamendu kritikoa landu eta askatasunez pentsatzeko ahalegina egin dute, errazkeriak baztertuz eta momentuko korrante nagusia auzitan jarritz. Honela dio Azurmendik:

Miranderen kontra beti entzuten diren gauza horiek denak, nazia zela eta abar, entzun nituen nik ere. Eta irakurri nuenean, nire sorpresa izan zen bere munduaren parte handi bat nirea zela. Hain zuzen, Nietzsche, Spengler eta ildo horretatik datorren kritika guzti hori nik ere partekatzen nuela.

Euskal Herriaren menderakuntza-egoeraz jabetzearekin batera, horrek eragindako krisiaz hausnartzen dute biek, Azurmendik giza pentsamenduaren historiaz duen ezagutza zabala eta sakona baliatuz eta

Mirandek irrazionalismo filosofikoak ematen dion mundu-ikuskera erabiliz. Ados dira, aldeak alde, gure herriaren historiaren irakurketan eta diagnostikoan. Honela Azurmendik:

Berrehun urte honetan Euskal Herriko historia izan da, ez bakarrik eusko lurra. Botere inbaditzaile militar, instituzional administratibo, eskolarraren historia bat, eta euskal erakunde politiko eta sozial tradizionalen desagilearena, baina baita arimen eta etxeen eta harreman pertsonalen eta identitateen inbaditzaile eta nahastailearena ere.

Antzeko aipamenak egiten ditu Mirandek Frantziako Iraultzak Ipar Euskal Herrian zer ondorio izan zituen azaltzeko orduan.

Era berean, garbi ikusten dugu zer garrantzi izan zuen haientzat euskarak. Mirande Parisen euskaldundu zen, eta bizitza osoan aritu zen euskara aberastu, batu eta garai berrietara egokitzeko lanean. Ez zuen ulertzen euskaltzalea ez zen abertzaletasunik. Azurmendik, 56ko belau-naldiko ekintzaileekin batera, euskara jarri zuen nazio-identitatearen erdigunean. Izan ere, garbi du hizkuntzaren eta nazioaren arteko bat egitea naturala izan dela historian zehar: «Ez da nazioari hizkuntz komunitate esaten zaiola, baizik ere hizkuntz erkidegoei nazio esaten zaie».

Hizkuntza, nazioa, estatua liburuan, Azurmendik aipatzen du gizaki unibertsaltzat hartu ohi direla munduari buruzko ikuspegi zabala dutenak eta beren alorrean jantziak direnak. Hara non, euskaldun unibertsal guztiak euskararik gabekoak diren: «Euskara baztertu izatea kasik ezinbesteko baldintza bihurtzen da basko unibertsal izateko». Mirande eta Azurmendi euskal pentsalari unibertsalak ditugu; biak ala biak etxetik mundura joateko bidea erakusten digute, arrotasunik batere gabe, unibertsaltasunari buruzko aurreiritzi oker hori gainditzeko bidea erakutsiz.

Euskal Herri duina berreskuratzeko ahalmena ematen digu Azurmendik bere lanarekin; euskaldun osoa eta normala izateko posibilitatea egingarria izaterainoko lan izugarria egin du: titan baten lana, erraldoiarena. Bide-erakuslea izan da zentzurik sakonenean.